

Programazio didaktikoak eta defentsa lantzeko orientabideak



12.Ira - 07.Aza

Kod. @26-19

Edizioa

2019

Jaduerara mota

Online ikastaroa

Data

12.Ira - 07.Aza

Hizkuntzak

Euskara

Balio akademikoa

60 ordu

ZUZENDARITZA

Virginia Lacarra Escorza, Goierri Eskola, Irakaslea

Antolakuntza Batzordea

Fundación BBVA



Azalpena

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko baliozkotzea eskatuko da unibertsitateaz kanpoko irakasleentzat. Ikastaroak Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Sailaren homologazioa dauka irakasleen etengabeko prestakuntza gisa.

Ikastaro honetan, ikasleen errealitatetik abiatuta Heziberri 2020 eta LOMCEn oinarritzen diren programazio didaktikoen gakoak eta aplikazioa landuko dira metodologia aktiboak txertatuz (PBL, erronkak, STEAM, arazoak). Hortaz gain, komunikazioa ere jorratzen da, ahozko defentsa baten aurrean baliabideak eskuratzeko.

Metodologiari dagokionez, ikaslearen autonomia eta partehartzea sustatuko da. Irakaskuntza ikaskuntza esanguratsuan oinarrituz.

Bakoitzaren errealitatetik abiatuta, programazio didaktiko baten gakoak bereiziko ditu ikasleak.

Ebaluaketa: Gai bakoitzeko lan bat egin beharko dute ikasleek.

-60 ordu 9 astetan zehar (astero 7-8 orduko dedikazioa)

-Hasiara: 2019/09/12 Bukaera: 2019/11/07

-Tarifa bakarra: 120 euro

-Hizkuntza ofiziala: euskara

Helburuak

Programa

2019-09-12 / 2019-09-22

Justifikazioa, testuingurua eta marko juridikoa

Justifikazioa, testuingurua eta marko juridikoa Atal honetan programazioaren lehenengo zatia azalduko da. Horrez gain ikastetxearen testuinguruak duen garrantziari buruz hausnartuko dute ikasleak. Heziberri 2020n oinarritutako programazioaren gakoak landuko dira. Gaia amaitzean ikasleak programazioaren atal bat aurkeztuko du.

2019-09-23 / 2019-10-12

Konpetentziak, helburuak eta edukiak

Marko juridikotik abiatuta, gai honetan oinarritzko zein diziplinako konpetentziak landuko dira. Bide batez, bakoitzaren gaiari lotuta, helburuak formulatzen ikasiko dugu. Gaia amaitzean ikasleak programazioaren atal bat aurkeztuko du.

2019-10-13 / 2019-10-20

Metodologia eta ebaluazioa aniztasuna aintzat hartuta.

Hainbat metodologiei buruz hausnartuko dugu, ikasleak horiei buruzko bisio globala izan dezaten. Metodologia horien artean, PBL, arazoak, erronkak, eta flipped learning-en enfokea ezagutuko dira. Beste alde batetik, aniztasuna ere nola jorratu daitekeen azalduko da. XXI. mendeko hezkuntza eredu inklusiboari erantzuna emateko. Azkenik, ebaluazioari dagokionez, rubrikak aztertuko dira. Gai honetan ez da lanik aurkezten

2019-10-21 / 2019-11-07

Unitate didaktikoak eta defentsa

Atal honi buruzko gakoak landuko dira eta gaia amaitzean ikasleak UD bat landuta aurkeztuko du.

Zuzendariak



Virginia Lacarra Escorza

Goierry Eskola, Irakaslea
(Donostia)

Matrikula prezioak

MATRIKULA

2019-09-13 ARTE

[Tarifa bakarra](#)

120,00 EUR